

Hitzaurrea



onarekin ospatzen zituzten piratek beraien garaipenak; eta gutako bakoitzak aukera dezala nahi duen edabea 19. Behinola hau eskuetan duela ospatzeko.

Hitz eta Pitz sailean, hiru euskal argitaletxetako buruekin solastu gara. Elkar argitaletxeko JOXAN ORMAZABAL eta XABIER MENDIGUREN, Alberdaniako INAZIO MUJICA eta Ereingo IÑAKI ALDEKOAREKIN. Hiru lagun horiek ez dute aurkezpenik behar gurean, urte asko daramatzatelako euskaraz kalitatezko liburuak plazaratzen, jatorriz euskaraz idatziak edo munduko hizkuntza ezberdinetatik itzulitakoak. Hitz eta pitz bizi honetan galderak itzulpenaren ingurukoak izan ziren: Zer euskaratzen da eta zergatik? Non bilatzen duten informazioa jakiteko zein liburu diren interesgarriak euskaratzeko... Zinez elkarrizketa mamitsua osatu dutena hiru argitaldari hauek.

Hizpide atalean, VELJKA RUZICKAREN eta MANU LOPEZEN artikulu bana aurkituko dugu.

Veljka Ruzicka Miramar Jauregian iaz egin zen Haur eta Gazte Liburuaren IV. Biltzarrean emandako hitzaldia guregana ekarri dugu: kulturantzatasuna dela eta, itzulpenetan sortutako arazoengatik inguruko hausnarketa.

Bertan, Ruzickak hiru puntu nagusi jorratu zituen.

1. Estatuko lau hizkuntza ofizialetan dauzkagun adibide ugariak hartuta, itzul-tzaileek izandako esku-hartzea aztertu da. Manipulazioa nahigabekoa izan daiteke (hanka-sartzeengatik edota jatorrizko kultura ez ezagutzeengatik eginak...) edo nahita eragindakoa (kulturen arteko distantzia gutxitzeko, xede-kulturan probokatzailatzat har daitezkeen elementuak leuntzeko edota baita gizartearen errealitateari eginiko irakurketa kritikoak ezabatzeko ere), baina, edonola ere, manipulazio hori beti da etxekotzeko estrategia baten zati, batzuetan baita arrazoi soziolinguistikoengatik edota estiloa hanpatzearen eragindakoa ere.

2. Kontuan hartuta HGLaren komunikazio-egiturak baduela berezitasun bat, hartzailerearen izaerak berak eragindakoa, honako asimetria hau ageri da: heldua da bitartekaria eta berak kontrolatzen du liburua sortzeko eta transmititzeko prozesu osoa, idazteko zereginetik hasi eta zabaltze-lana burutu arte, irakurle gaztea berak egokien irizten duen horretara gertura dadin saiitzen baita heldua. Itzulpen-prozesuan, gainera, badugu beste irakurle inplizitu bat, jatorrizko testua manipulatzeko duena, eta ez beti modu egokian.

3. Horren ondorioz, HGLko itzulpenen azterketa kritikoak egiten jarraitu beharra dago, haur eta gazteentzako irakurketen kalitatea hobetzeko bidea direlako.

Bestalde, Manuk euskal haur eta gazte literaturako adibideekin egindako artikulua Veljka Ruzicka Kenfelek egindakoa osatzera dator. Hona hemen haren izenburua: «Itzulpen-joerak euskal haur eta gazte literaturan».

Nahigabe egindako esku-hartzeen artean, abenturazko literaturako testu itxuraz kanonikoak zirenen itzulpenaren kasua deskribatzen da, baina funtsean gaztelaniaz egindako egokitzapenetatik (testu originalak laurden batera murriztu zituztenak) abiatutako itzulpenak izan ziren. Modu berean, aipatzen da R. Dahlen *Charlie and the Chocolate Factory* lanean aldaketa testual handi bat dagoela, artean jaso ez dena euskarazko itzulpenen berrargitalpen ezberdinetan.

Nahita egindako esku-hartzeen ganean, garai ezberdinetako egokitzapen kulturalen hiru adibide ematen dira, G. Orwellen *Animal Farm* lanaren trantsizio garaiko euskal giro politikoan girotutako egokitzapena barne. Modu berean, (auto)zentsura adibide bat aipatzen da, eta beste bat estiloa jasotzeko helburuz egina, kasu honetan alderantzizko itzulpen bat da, testua beste sistema literarioen eskakizun erretorikoei egokitzeko.

Hitzordu sailean, GALTZAGORRI ELKARTEaren zenbait ekimen azalduko ditugu.

Hitz beste atalean, beste behin, gure erreseina taldeak egindako lanarekin gozatzeko aukera izango dugu.

Bukatzeko, **Hitzatzea** IÑAKI MENDIGURENEK burutu du, bertan azalduko digu zein atsegina den bere lana, eta *freelance* izaki itzulpen literarioak eta komertzialak egiten diharduela, ingelesatik eta gaztelaniatik euskarara nagusiki. Argituko dizkigu zein oztopo eta zailtasun aurkitzen dituen bere lanean, baina gehienbat bere lanak ematen dizkion abantailak eta pribilegioak plazaratuko ditu.

Mendigurenek esango digu itzulpen komertziala errentableagoa dela, nahiz eta literatur itzulpenek ematen ahal dioten gozamenik ez eman. Hortaz, bi itzulpen mota ikusten ditu beharrezkoak eta bien arteko osagarritasuna eta oreka bilatzen saiatzen da. Bukatzeko, zenbait hausnarketa egingo ditu itzulpen-aktibitateak gizartean duen errekonozimenduaren inguruan.

Azkenik, goraiatu AITZIBER ALONSOK egindako lana, guztiontzat plazera izango da haren ilustrazioekin orriz orri Behinola hau irakurtzea.

